

HITZAR

(Talde sustatzailearen jarraipen bilera)

DATA	2023-01-9
BERTARATUAK	Nagore eta Iñaki (Itsasondoko Udala), Naroa, Agurtzane eta Alazne (Goienerr), Iker, Xabi, Ainhoa eta Fede (herritarrak), Erkuden (Tandem Komunikazioa) Nerea (Biziola)
GAI ORDENA	Goienerrren azterketa teknikoaren aurkezpena Batzar Irekien prestaketa

1.- Ongi etorria eta saioaren kokapena

Ongi etorria ematen zaie saiora gerturatutako guztiei, bide batez bileraren gai-ordenari errebaso labur bat egiten zaio.

Azken bileratik emandako pausoen errebasoa egiten da. Kooperatiba eratzeko prozesuari dagokionez, aipatzen da Hitzar Kooperatiba onartuta dagoela kooperatiben erregistroan eta eskuratu duela behin betiko CIFa. Kooperatibaren baitan eman beharko diren hurrengo pausoen jarraipena emateko Goienerreko Naroak Elkarlaneko Mireneren kontaktua helaraziko dio Udalari.

Horrez gain, Laboral Kutxan kooperatibaren kontu korrantea ere ireki da. Kontu zenbakia bidaliko zaio Udaletik Goienerrri orain arte bazkideek egindako ekarpenekin transferentzia egin dezan. Jakinarazten da, bazkideetza formulario bete arren oraindik ordainketa egin ez duten pertsonak daudela eta honi jarraipena eman beharko zaiola.

Amaitzeko, Notaritzako gastuak Goienerrekin ordainduko dituela aipatzen da (Goienerrren proposamenean horrela zegoen jasota). Nagorek faktura bidaliko dio Goienerrri.

2.- Goienerrrek egin duen azterketa tekniko-ekonomikoaren aurkezpena (Iraolako Ustiatagia)

Lehen momentuan, Agurtzanek, azterketa teknikoari testuingurua jartzen dio. Proiektugintza lan taldean egindako ibilbidea gogorarazten du; herriko hainbat teiltaturen azterketa egin ostean, egokiena Iraolako Ustiategiarena zela erabaki zen, beraz teiltatu horren azterketa tekniko-ekonomikoa da aurkezten da. (*Atxikituta Goienerrren aurkezpena*).

Azterketa ahalik eta errealena izan asmoz, bazkideen artean faktura bilketa egin zen. 24 bazkideren datu errealak erabili dira beraz azterketa osatzeko.

Goienerrtik egindako aurkezpenaren ostean, aipatzen da bazkideekin egin beharreko batzar informatiboan aurkezpenean jasotzen diren hainbat kontu (bereziki bideragarritasun ekonomikoari lotutakoak) beste modu batera aurkeztu beharko liratekela, sinpleago eta pedagogikoago.

Aurrekontuaren “formatoari” buelta bat emateko konpromisoa hartzen dute Goienerr eta Kreak elkarlanean. Urtarrilaren 19rako adosten dute zita.

Azterketa teknikoaren amaiaren, plaketatik ekoiztutako energia bazkideen artean banatzeko bi aukera posible aurkezten dira Goienerrtik (ia muturrekoak, jakinik kooperatibako kideek bestelako formulazioak ere egin ditzaketela bi aukeren arteko abanikoan).

3.- Lan-taldeen osaerari errepassoa

Kooperatibaren jardunerako ezinbestekoak izango diren hiru lan-taldeentzako momentuko egoeraren errepassoa egiten da. Kooperatibaren bizitzaren faseek markatuko dituzte lan-talde bakoitzaren erritmoak eta lehentasunak.

2.1.- Proiektugintza: Energia berriztagarria eskuratzeko proiektu konkretuen lanketa. Osatuta dagoen lan-talde bakarra da.

2.2.- Kooperatibaren kudeaketa: Zeregin administratibo eta juridikoak jasotzen ditu lerro honek: Kooperatibari dagozkion diru-kontuen eta alderdi tekniko juridikoen jarraipena.

Kezka handia eragiten du lan-talde honek. Momentuan ez dago inor, eta gainera, ezagutza espezifikoa eskatzen du. Aholkularitza edo bidelaguntza espezializatuta beharko litzatekela uste da. Horretarako, lehen pauso moduan, zeregin konkretuen zerrenda bat egin behar, Goienerrrek prestatutako dokumentutik abiatuta. Behin beharrak ezagututa zerbitzu hori eskain dezaketen

eragileei aurrekontuak eskatu beharko zaizkie. Fedek Ordizian eta Tolosan bi erakunde ezagutzen dituela aipatzen du. Biziolarekin kontrastea egitea ere mahai gainean jartzen da.

2.3.-Komunikazioa eta hedapena: Egungo bazkideekin komunikazioa, bazkide berriak lortzeko estrategiak, etab. jasotzen ditu lerro honek. Momentuz, Erkudenek hartzen ditu bere gain zeregin hauek.

4.- Batzar Irekiaren prestaketa:

Batzar irekiaren prestaketari dagokionez, hartzen den lehen erabakia batzarra urtarrilaren bukaeratik **Otsailaren 9ra** atzeratzearena da. Batzar Ireki hau oso garrantzitsua da Talde Sustatzailearentzat eta gauzak txukun egitea ezinbestekotzat jotzen da.

Batzarrean, besteak beste, ondorengoak landu beharko liratekela adosten da.

- Orain arte egindako pausoak aurkeztu
- Iraolako Ustiatetikiko Proiektu posiblea aurkeztu behar da, eta proiektu kolektiboen onura aurkeztu (Jonen menpe dago ere teiltuaren neurriak jakitea). Aurrez aipatu den moduan, proiektu teknikoaren aurkezpena “herritarrek ulertzeko formatura” pasa behar da, bide batez bideragarritasun ekonomikoko datuak ere modu sinple eta argiagoan jarritz.
- Batzar informatibo honen ostean egingo den erabakiak hartzeko batzarrean hartu beharreko erabakiak zeintzuk diren aurkeztu beharko da.
- Udaletik argitu beharko da egun Udal erabilerakoan diren plaken egoera zein den. Hau da, Udaletik borondate osoa dago hauek Hitzarri lagatzeko, baina zalantza juridikoak daude gaiaren inguruan. Udala aztertzen ari da zein aukera posible egon daitezkeen eta zeintzuk diren eman beharreko pausoak.
- Zalantzak argitzeko tartea
- Hurrengo pausoak eta itxiera

Erkuden prest agertzen da Batzar Irekirako euskarri komunikatiboa prestatzen laguntzeko.

5. Norberak lekarkeena

Iraolako Ustiatetikiko Lagapenerako akordioaren eredia landu du Fedek eta taldean partekatu du. Instalazioak egin aurretik landu beharko da gaia. Bestetik,

lagapenen gaiari lotuta, Udaletik galdetzen da ea zeintzuk izan beharko lirartekeen Udal-instalazioak ere Hitzarri lagatzeko prozedimendua. Goienerri eskaera zuzena egiten zaio gai honetan laguntza eskatuz. Orain arte, Goienerretik dokumentu bat helarazi da, duen informazioarekin dirulaguntzei lotutako instalazioak lagatzeko dauden oztopoak biltzen dituenena. Gaia Goiener eta udalaren arteko bilera batean argitzeko proposamena egiten da Goienerretik.

Hurrengo bilera:

Urtarrilaren 30an, arratsaldeko 17:30etan lotu zen hurrengo bilera Batzar Ireki informatiboa prestatzeko. Aurrez batuko dira Goiener, Krea eta Biziola proposamena aurreratuta eramateko. Gainera Erkudenekin koordinatzeko konpromisoa ere hartzen da.

6.- Itxiera

Amaitutzat eman zen bilera